Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Jesus Otaegi Urrutia

Donostia, Gipuzkoa (1928)



Aurkibidea

Biografia



San Frantzisko kalean jaio zen, Grosen; Katalunia plazan, hain justu. Aita Beizamakoa zuen, eta ama baztandarra. Okindegia zuten etxe azpian. Pospolinetara joaten zen umetan, Kursaalera. Hamar urte arte Santa Teresa ikastetxean ikasi zuen, mojekin. Peñaflorida institutuan egin zuen batxilergoa. Magisteritza ikasi zuen. Andereño ibili zen, lehenengo isilpeko ikastoletan eta gero Santo Tomas lizeoan, erretiroa hartu arte. Jaio zen etxean bizi da. Fermin Muñozekin ezkondu zen, eta sei seme-alaba dituzte.

Zintak

DON-072

- **Proiektua**: Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2010-02-05
- **Iraupena**: 91 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Katalunia plaza ingurua nolakoa zen; Biteri eskolak

- **Erref**: DON-072/003
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:00:35. **Bukatu**: 00:02:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Grosen jaio zen, San Franzisko kalean. Auzoa nolakoa zen, Katalunia plaza. Biteriko eskolak. Ondartxo etxea. Santa Teresako mojen ikastetxea.

2. Santa Teresa ikastetxea; katalanak Grosen

- **Erref**: DON-072/007
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:03:54. **Bukatu**: 00:07:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Santa Teresa ikastetxeko mojak Bartzelonakoak ziren. Gerra garaian kataluniar asko etorri zen Grosera; La Barceloneta deitzen zioten. Iturria jarri zuten kataluniarren omenez; Amaran dago orain. Erdaraz dena. Uniformea.

3. Peñaflorida institutuan batxilerra

- **Erref**: DON-072/008
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:07:28. **Bukatu**: 00:10:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Peñaflorida institutuan, neskak eta mutilak elkarrekin. Historiaurrea oso ongi ikasi zuten. Irakasleak. 13 neska ziren. Karrera egiteko aukera handirik ez zegoen, baina Magisteritza egin zuen.

4. Isilpeko ikastolak eta andereño titulua

- **Erref**: DON-072/009
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:10:21. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Isilpeko ikastolak. Haurrak eramatera Elbira Zipitriarengana joaten zen Parte Zaharrera. Elizaren babesean normalizatu zen. Andereño askok titulaziorik ez zuten, eta beraiek utzi zieten. Andereño ere ibili zen. Santo Tomas lizeoa.

Transkripzioa
-E, gero, ikastolak? Bueno, pentsa, salto bat emanez, e: ikastolak e... klandestinoak ziren, dudik ez, “porque” honek esan oso errexa, baiño... Ni haurrakin juten nitzan, haurrak eramatea, gure haurrak ikastolara Elbirangana, bi ordu ezberdiñetan goizian. Klaro, lau orduko, lau... talde ezberdinetakoak ziren, lenengo lauak esate bateako. Eta topatzen nitzan... egualdi... oiñez iten nun bidia gehiyenetan, baiño batzutan tranbia hartzen genun ordun. Hor tranbia zeon bulebarreaiño. Egualdi txarra o hola, ta jende ezauna eta: “Oi, noa zuaz? Oi, ¿de dónde vienes, de clase?”. “Sí”.

“¿A qué colegio van?”. Eta nik esaten nun: “Nola, nola esango (di)yot honi ikastola? Lenengo gauza ezin dala esan eta bigarrena ez dakite zer dan!”. Azkenian asmatu nun: “No, es que dan clases particulares”. “A, bueno, muy bien”. Eta hau zertara zetorren? Ez dakit.
-Bai, klandestinua zala, ez zala...
-Klandestinoa zala. Gero hasi... eta gero, babesa, elizan babesean hasi ziren normalizatzen eta... baiño bazeuden andereiño asko tituluik ez zutenak /etzutenak/, batez ere... hemen bertan eta herri txikietan oso euskera ona zutena eta prestakuntza in ta /da/ gero, baiño titulazioik ez zuten /etzuten/. Eta ordun lelengotan eskaera bat in ziguten gurasoei: “Zuen artian baldin badao norbait titulua duna, bihar ez duna, arren, faborez...”. Eta nik ordun eta beste batzuk, Elixabet eta hoiek... gure tituluakin beste batzuk iten zuten lan, eta rebiso... este, ispekzioa zutenian “ya está”, zerbait presentatzen zuten gutxinez. Ta beira, hortarako balio izan zun behintzat.
-Baiña zu andereiño ere ibili ziñan.
-Bai, gero. Gero, urtiak pasa... lenbizi ibili nitzan urte bat o, andereñoik gabe geratu ziren, orduan ez zeuden nahikoa, eta bat-batian sortu bihar zan... haurrak prestatuak... Eta bueno, dei ein ziaten eta esan nun: Buf. Etxeko martxa eta bueno, nere ahizpakin hitz ein nun: arduratuko ziñake? Eta bai, eta bueno, haundiak ziren ya gue neska-mutillak eta, bueno, prueba in nun eta bi urte. Baiño bi urteta esan nun: “Gehiyo ezin det, ezin det”. Ta utzi, eta gero gauza bera gertatu zizaidan lizeoan. Deitu ein ziaten, Santo Tomaseko lizeoan andereño baten bitartez antzeko gauza.

5. Isilpeko ikastolen balioa

- **Erref**: DON-072/013
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:14:08. **Bukatu**: 00:15:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Elbira Zipitriarengana joaten zen umeekin. Ez zekiten zein etorkizun izango zen, kezkak zituzten. Miraria iruditzen zaio egungo euskarazko hezkuntza.

Transkripzioa
-Eta hasieran... bueno, Elbira, Elbira Zipitriana...
-Elbira Zipitriana.
-Jun ziñan alfabetatzera?
-Bai, bai.
-Klaro, zuk Magisteritza erderaz ikasiko zenun...
-Bai, dana.
-Ikasketa danak.
-Dana, dana, nik ezta hitz bat ere. Eta gero juten giñan haurran billa, eta goatzen naiz behin Patxikin. “Ze lanak hartzen ditugun”, han “muralla” deitzen dutena... zea, han goiyen haurran billa, patinatzen beak eta jostatzen, ta gu berriketan denboa pasa bitartian. Eta esaten genun: “Hainbeste lan ta gero zer?”. Eta bai, hori, alperrik ez ote zan izango. Eta bira: nork pentsatu gero nere bilobak batxillerra euskeraz ingo zutela. Ezta? Eta pentsa, batxilerra eta gero karreran ere bai, Maiderrek aukeratu nun euskeraz itia. Eta posibilidade hori izan dute, eta oain halako indarra

eta eskola publikotan ere euskeraz eta... nei iruitzen zait mirari bat, egia esate(n) (d)izut, e! Garai batian ez genun hori pentsatzen.

6. Zipitriaren metodologia

- **Erref**: DON-072/015
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:15:16. **Bukatu**: 00:16:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Elbira Zipitriaren metodologia. Haurrak, lehenengo andereño Faustinarekin eta gero berarekin. Azterketa egiten zuten, eta oso ongi prestatuta zeuden. Umetan, poxpolinetara joan zen.

7. Poxpolinetan euskara ikasten

- **Erref**: DON-072/017
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Poxpolinetara joaten zen haurra zela, euskara ikastera, Kursaalera. Astean bitan joaten ziren. Dantza. 14-15 urterekin dantza ikastera joan zen.

Transkripzioa
-A, bai, goatzen naiz. Kartel batekin atera, eta hitz hura esan, eta bueno. Hola ikasi...
-Poxpolin... baiña hori antzerkiya ala dantza?
-Ez, ez, antzerkia ikas... euskera ikastea.
-Euskera ikastera pospolinetara, e?
-Bai, bai. Haurrak, e. Zein zan hau? Apaiza zan... Pasaiko bat. Don Nemesio ez... Ez naiz goatzen. Izenak, izenak ez naiz goatzen. Ez, ni goatzen naiz gauzetaz eta...
-Kursalen ala... ?
-Bai, Kursalian. Bai, bai, bai. Ikusten ai naiz terraza hura, eta nola zeon. Zinea zeon tokia... zuk zinea ere ez dezu ezautu, klaro... Zoragarria zan, neri kubo hoiyek ez zaizkit batere gustatzen.
-Eta hor e... orduan dantza...
-Juten giñan astian bitan edo, goatzen naiz, illunabarrian.
-Orduan ez zan bakarrik dantza erakusten, euskera ere bai...
-Baita´re, baita´re! Euskera ere bai, dantza ere bai, bai, bai. Dantza ere bai. Gero jun giñan, ni [...] nere lagunekin, hamalau-hamabost urtekin edo, bazeon bai dantza eskola bezela hor; Agedita Sarasua famatua, oso dantzari ona, hor ikasia da ere bai. Eta oso... eta hor juten giñan euskeraz... oi, dantza iten, dantza itera.
-Eta aurretik, euskera ikasteko ze esan dezu, kartelak eta?
-Beira, ni gogoratzen... oroigarri hori daukat. Hartzen... bai, kartolina batian

izen bat hartzen zun, esate baterako “pues” ez dakit... itsasoa. Ta han jartzen zuna guk esan in bihar genun. Haurrak giñan, oso txikiyak, lau urte edo izango genitun, e. Hola esanez eta errepikatuz ta hola nunbait sistema izango zen... metodo hori, pixkat ikasteko.
-Eta abestu-eta iten zenuten?
-Bai.

8. Gurasoek okindegia jarri zuten

- **Erref**: DON-072/021
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:19:55. **Bukatu**: 00:22:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Batzokira ez ziren joaten. Aita Beizamakoa zen, eta ama Baztangoa, Oronozkoa. Udan joaten ziren hara. Gaztetan etorri ziren Donostiara. Okindegia jarri zuten: San Ignacio. Katalanen trebezia eskulanekin.

9. Etxeko negozioa, okindegi-gozotegia; boladoak

- **Erref**: DON-072/022
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:22:26. **Bukatu**: 00:26:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Dendan egoten zen. Orduko gozodendak nolakoak ziren. Egurrezko labeak, ikatzezkoak. Hostopil egin berria. Aita okina zen. Ogia, gozokiak, "boladoak"... egiten zituzten. Torta katalana.

Transkripzioa
-Zuk okindegian-eta, etxeko negoziuan in zenun lana?
-Bai, klaro. Ya batxillera bukatu nunian eta bai, dendan eoten nitzan, ez egun guzin baiño...
-Bai, orduan pasteleria ere bazan.
-Bai.
-Eta jentia juten zan... hor bazeon exertzeko tokirik ala zan erosi ta...?
-Ez, ez, ordun ez, ez zan /etzan/... Bai, bai. Bai, baiño ordun beste era batekua, ez oain bezela. Ordun zian txokolatiak, eta txokolatiña. Oso... goatzen naiz, bai.
-Eta txokolatia txurruekin edo...?
-Txurruak ez, pastak eta bai, pastak eta bolleria ta. Bizkotxoak eta.
-Eta horra ze juten ziran, meriendatzera edo...?
-Bai, baiño ez gehiyegi. Batez ere zan saldu, bai, saltzia, hola.
-Ze jartzen zan, boltsatan edo paperian bilduta, eramateko etxera?
-Pastelak bandejan, oain bezela.

-Oain bezela.
-Bai. Bere papera, bere lokarria, berdin.
-Eta pastelak iteko modua-eta, aldatu da ala...? Labiak eta...
-Bai, labia... nik ezautu ditut labiak ba egurrezkoak. Ikatza ere bai. Eta gero elektrikoak ez, oaindik ez. Ez det uste, ez.
-Orduan usain oan egongo zan...
-Oi, bai. Nik jan izan det ojaldria egin berria, hori da... munduko gauza goxoena! Ein berria, e, gero ya galtzen du asko, baiño bai, bai.
-Eta zure gurasuek nun ikasi zuten ogiya iten?
-Nere aita okiña zan.
-Zure aita okiña zan, Beizaman?
-Beizaman ez, Donostira etorri zanean.
-Ikasi zun hori ofiziyua, okiñana. Eta jende aksok iten zun lana hemen?
-Bai. Bai, bai. Ordun bost o sei ogia iten eta beste bost edo goxokiak iten.
-Goxokiak...
-Bueno, baita´re! Malbabiskako karameloak eta iten ziren garai hartan.
-A, bai? Eta hori ze, nola, nola iten zan?
-Eta boladoak ez takit ezautu dituzun. Ezautu ere ez!
-Ez.
-Oso goxoa zan. Txokolatia iña hartzeko, batzuk txurroakin, baiño bestetan ur kopa bat eta han jarri “azucarillo” deitzen da ere bai, “bolaus”. Azukria ta ura, baiño jarri bihar da puntu berexian. Ta ordun zeon “guitarra” deitzen zuten holako tresna bat, alanbrez beteta. Alanbre batetik bestea horrela paperak eta brrr... jarri hola, momentuan izan behar du, oso... eta gero gogortzen zanian oso goxua izaten zan. Gure Joxeani asko gustatzen zitzaiyon hori.
-Hori momentuan iten zan, orduan?
-Bai. Bai. Hori iten zan azukria, deitzen da “punto de caramelo” bezela. Ez, gutxigo. Eta ordun, guri-guri daonian oaindik, ordun bota ta... eta hoztutzen zan bezain pronto geratzen zan hola, klaro, errexa da puskatzia, belaxe txikitu iten da. Bai, bai. Kopan, basoan urakin sartu, eta ur azukria. Ur azukria. Hori galdua dao. Nunbaiten ikusi nun lengoan. Bai, hemen Donostin ikusi nun nunbaiten. Barrenetxen edo... Bai, bai, baiño ez da ikusten, ez.
-Eta zeinz an zuen espezialitatia? Bazenuten hola, ez dakit, bizkotxo edo pasta berezirik?
-Ni goatzen naiz katalanak hemen zirela ba bere, beak asmatu, ez dakit nola izan zan hori... “Torta, torta catalana” deitzen zan. Bai, “torta catalana”, bai, haundia. Baiño urte haiek ziren eta zentzu gabeko gauzak. Bazeon iriña ogia iteko. Oi, ogiya iteko ez zeon /etzeon/ nahiko iriña, mugatuta dana, eta ogia ere bai. Eta gero kupo batzuk ematen zituzten ba hortarako. Bestela, klaro, danak [...] ezin da, oain bezela nunbait dena gelditzen bada akabo, nunbait horrekin jolasten zuten edo ez dakit.

10. Gerrako kontuak, fusilamenduak eta atxiloketak

- **Erref**: DON-072/024
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:26:48. **Bukatu**: 00:30:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Urte gogorrak. Lehengusu bat hil zen frontean. Inguruan ezagun asko fusilatu

zituzten. Eliza ez erretzeko, sagardotegiko Juanito zaintzen egon zen; Ondarretan preso sartu eta desagerrarazi egin zuten. Salaketak eta atxiloketak. Ezkutalekuak.

Transkripzioa

-Ni entzunez, entzunez... guri ez zaigu /etzaigu/ tokatu familian. Gure ama zanak esaten zun: “Geizki pasa, baiño suertia izan degu”. Bakarrik nere lehengusu bat hil zala, baiño frentian ya, gerran, beste gauza da, baiño fusilatuta hola ez. Baiño inguruan ezaunak bai.

-Jende asko jun zan...

-Beira, gau hartan nola kontatu deun hemendik jendia iheska zijoala eta kale hau zan: koltxoia sorbalda gaiñian, maleta zaharrak ahal zuten / altzuten/ bezela, haurrez beteta ta korrika danak. Ni: “Ama, goazen, goazen”. Noa ez nekien, baiño “ama, goazen, goazen”. “Bai, oaintxen jungo gea, oaintxen jungo gea”. Eta gero eliza erre in behar zutela, “porque claro” hemen ba PNVkoak eta baziren ta jende.... Baiño beste batzuk ere baziren, hola pentsatzen ez zutenak, eta esan zuten / esantzuten/ alde itekuan erre ingo zutela eliza. Ordun, PNVko... hemen bizi zan, sagardotegi bat zun, Juanito, eta gizon haundi bat, pasa... bea eta beste batzuk pasa zuten gau guztiya eliza gordetzen, e. Salbatzeagatik, ez? Bestiak...

-Ez erretzeko.

-Hori da. Eta handik egun batzutara reketeak sartu, eraman zuten, atxilotu zuten, eraman zuten espetxea, ordun zeon Ondarretan kartzela, eta bere alaba, ni bezela deitzen zan gaiñea, bere alaba juten zitzaiyon egunero bazkaria eramatea. Egun batian iritsi, eta esan zion /esantzion/: “Ez, ez dao /eztao/ hemen”. “Oi, ez dao /eztao/?”. “Ez, eraman dute, eraman due Errioxa aldea mahatsa biltzea”. Nola esaten zan erderaz? “Vendimiar. Le han llevau a vendimiar”. Eta beste batzuei gauza berdiña, ta beste batzuei, eta beraiyei... eta esaten zutenian “a vendimiar”, kitto, garbiak. Garbitu zituzten ordurako. Ta holako asko. Hemen zeon beste emakume bat... bere senarra ere gizon [...] zan, nik uste det, hor bizi zan. Eta zitun hiru seme-alaba eta bat, gaiñera, zan ez oso... betiko haurra, ez dakit ze, txikia geratu zan, ez zan /etzan/ oso-oso... osatua ez zeon /etzeon/. Eta egun batian, e... dendan beste batek zirikatu in zun, ez dakit intentzioakin edo ez ta... A, ez, bai: harek ba jakiteagatik. Oi, beltzez ikusita: “Ai, Maria, ya le veo, que le pasa, quien se le ha muerto?”. Eta bestiak kontatu. Eta esaten dio: “Pues que le han matau a mi marido, estos sinvergüenzas, que son tanto como los otros”, o holako zerbait. Eta beste hirugarren batek entzun, ta denuntzia jarri zion emakume horri. Denuntzia jarri zion. Ta eraman egin zuten, eta hiru haurrak geratu zian hor. Ez dakit zenbat denbora euki zuten, baiño... holako gauzak...

-Holako gauzak asko, ezta?

-Asko. Naparran ere bai, e. Naparran ere bai. Eta hemen bizitu zan beste bat ere, laugarrenian bizi zan, ordun: Artola. Hura ere garbitu in zuten. Igesi zijoan Bilbotik Burdeosea, eta bidian Francon itsasontzi haundi bat, “el Cervera, que nos tenia asustaus”, sirena jotzen zuten, zerbait ta pan-pan, eta gu bodegara danak. Etxeko guztiak, e. Hemengo biztanle guztiak bodegara. Uiii. Gu haurrak giñan ta oso ongi pasatzen genun. Gordeketara jostatzen giñan, iriñan zaku tartian ta hola. Baiño bai, bai. Eta harrapatu zuten beste txalupa, o beste itsasontzia, eta garbitu zituzten hor, Hernaniko kanposantuan. Bai, bai, hemen garbitasuna in zuten izugarria.

11. Gerrako haurrak

- **Erref**: DON-072/025
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:30:41. **Bukatu**: 00:31:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Aita Bilbora joan zen, baina beraiek etxean gelditu ziren. Ezagun batzuk Errusiara bidali zituzten lau seme-alabak, eta ez zituzten gehiago ikusi.

Transkripzioa
-Eta lehen esan dezu amari esan zeniyola: “Goazen, ama, goazen”. Ta /da/ nora, nora jun ziñaten?
-Ez giñan jun.
-Ez ziñaten jun.
-Nere aita jun zan /juntzan/ aurretik Bilbaoraiño. Eta etorri zan egun batian. Ni hortaz goatzen naiz, etorri zan eta esan zun /esantzun/. Amai esan zion /esantzion/: “Maria, arkitu det etxe bat haurrentzat. Villa bat da, eta han egongo die oso ongi”. “Nola?”, esan zion /esantzion/ amak. “Haurrak, eta gu hemen? Ezta pentsatu´re, zerbait gertatzen bazaigu, lauak eon... lauai gertatuko zaigu, baiño banatu...”. Eta nere ahizpai esaten nion askotan. Hemen geratu giñan, ez zitzaigun ezer gerta... Ahizpai esaten nion: “Ia-ia Rusian bukatuko genun”. “Porque” hango haurrak jun ziren batzuk Inglaterrara, bestiak Belgikara... baiño hara jun zirenak ez ziren /etziren/ bueltatu gehiyo. Guk ezautu genun senar-emazte bat, lau seme-alaba zituzten, bialdu zituzten Errusira, hil ziren eta ez zituzten gehiyo ikusi. Lau, e. Errex esaten da. Lau. Ta holako asko.
-Ta zuek bi senide ziñeten? Bi ahizpa?
-Bi ahizpa giñan, baiño gero, nik hamabi urte nitula jaiyo zan beste... mutil, mutil bat.
-Orduan hiru...
-Hiru giñan.

12. Kupoak, errazionamendua

- **Erref**: DON-072/027
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:31:55. **Bukatu**: 00:33:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Kupoak zeuden, baina irina oso txarra zen. Errazionamendu kartila eta kategoriak. Gerraostean hasi zen gosea.

Transkripzioa
-Gerra ostian, hemen, klaro, ogirik nola ez zeon... eta zuek nola moldatzen ziñeten negoziyuan?
-Ba kupuak baziren.
-Kupuak.
-Bai, klaro. Bai, bai, bai. Egunero bazeon, baiño ze iriña. Gariyanzkoak ez

ziren, harri koxkorrak bezain gogorra.
-Eta zuek iten zenuten iriña, iriñ horrekin ogiya?
-Bai, bai.
-Eta ezin ona atera, ez?
-Ta batzuek holako puxka eguna pasatzeko. “Porque” ordun kartillak zeuden, razionamientokoa. Bai.
-Eta hona etortzen ziren kartillakin ogiya erostera?
-Bai. Eta bakoitzai eman behar zizaion... kategoriak zeuden gaiñea. Langilliak zuten pixkat puxka haundiagoa. Baiña holakoa egongo zen, e, lanian aitzeko, eta beste batzuk hola.
-Bollo txiki-txiki...
-Bai, bai, bai. Jendiak geizki pasa du. Gose, gerra bukatu ta gero izan zan okerrago, e. Gosete urtia izan zen 39an. Uste det, ez... 39an...
-Bai, berrogei ta...
-Ez, hogeita hemezortzi... 1942an, uste det. 39an bukatu zan gerra. Bai, bueno, hau liburutan eongo da, eta askoz hobeto jakingo (de)zue!

13. Gaztetxotan, zinemara beti

- **Erref**: DON-072/028
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:33:13. **Bukatu**: 00:36:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Gaztetxotan zinemara joaten ziren; ez zegoen beste ezer. Txofreko zezen plaza. Aste Santuko prozesioak. Mendira ere joaten ziren; senarra izango zena nola ezagutu zuen. Mendi taldea sortu zuten.

14. Orduko janzkera eta moda

- **Erref**: DON-072/030
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:36:37. **Bukatu**: 00:40:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:
Mendira gonarekin. Bizikletan ibiltzen ziren asko. Galtza-gonak egin zituzten. Panazko berokiak. Trintxerak eta katiuskak. Lehenengo zirak. Kristalezko galtzerdiak. Ile apaindegira ez ziren joaten, ez zegoelako ondo ikusia.

Transkripzioa
-Mendirako erropa aproposik eta hola ez zan egongo... Zuek gonakin...?
-Gonakin. Gonakin. Gero in genun, baiña “este”... “falda-pantalon” deitzen zana, bizikletan... A, bizikletan ibiltzen giñan asko, bai, bizikletan bai. Nei

asko gustatu izan zait bizikleta. Hor Kursalian ibiltzen giñan asko ta Hernani aldea, Epelekora, Oriora jun giñan bi aldiz, goatzen naiz, uf. Baiño bueno, kotxeik ia ez zeuden /etzeuden/. Baiño halare nehikua zan ordun. Bai, “falda-pantalón” ta gero in genitun... telik ere ez zeuden /etzeuden/! “Mil-rayas”-ekin goatzen naiz izan nula “falda-pantalon” oso polita. Eta gero lortu genun, kuadrillan bagenulako, ez hauen kuadrilla, beste batian, mutil bat ez dakit ze enpresan lan iten zun, eta lortu zun pana, gauza haundia bezela. Sastre batei eraman, eta in zigun /intzigun/ zamarra batzuk, oso ongi egiñak! Baiño euria iten zunian bustitzen zan, pixatzen zun... ai, oso onak atea zien, bere txanoa eta guzti, e. Boltsilloak eta barrutik, eta zinturoiakin eta... baiño bestela ez zeon /etzeon/, anorakak eta hori dana ezer ez!
-Inpermeablerik eta ez zan egongo, ez?
-Ez, ez zeon /etzeon/. Trintxerak. Hemen kalian ibiltzeko trintxerak, kaputxakin danak genun. Eta katiuskak.
-Katiuskak...
-Hemen ni goatzen naiz istitutoa jun eta hillabete batian kendu gabe, trintxera eta... esaten due oain euria iten dula baiño trintxera eta botak. Bai, eta gero bueno “pues” goatzen naiz nik izan nun lelengo xira... “Plesiglas” deitzen geniyon. “De plesiglas”. Trasparentia. Plastiko bat zan. Ordun ekartzen zuten gauza haundia bezela itsasoko gizonak, armadoriak edo zirenak, eta gero ekartzen zuten hemen ez zeuden gauzak, saldu iten zituzten etxez etxe. Holako bat erosia... zapatak ere bai “de plesiglas”, “medias de cristal”...
-Ta hori nola...
-“Medias de cristal”, oso ederrak ziren, oso onak. “Pues” beste... itxuraz bestiak bezelakoak, pixka bat lodiagoak.
-Eta hori kanpotik ekarritakua zan?
-Bai, bai, bai. Kanpotik ekarritakoa. Hemen ez ziren saltzen. Hemen galtzerdi... repasatuta behin ta berriro, ta holakoak. Bai, bai. “Es que” ez zeon /etzeon/ ezer, e!
-Ta lehen esan dezu pelukeriara eta ez ziñatela juten. Zuek...
-Baiño ez giñan juten... ez, nik ordun, bueno, hamazazpi urte nituela “pues” amak ematen zian pagakin nahikua nun pelukeira juteko ta nere lagunak ere bai, baiño ez, ez giñan juten... ez zan ondo... bakarrik bakizu zeintzuk... bueno, etxeko andriak ere gehiyenak ez, e. Gaiñera, berrogei urte bete ezkeroz ya “moñito” jantzi, “azul marino” ta punto. Baiño ordun juten ziren emakumeak fama txarra dutenak gehiyenak, eta oso... hondak hola oso markatuak... garai hartan. Baiño ez zeuden /etzeuden/, oso gutxi zeuden, nik uste det, ezingo nuke esan... Bai, bazeon hemen bat, baiño bueno bai, jungo ziren... gu ez giñen juten, gu ez giñen juten, gu moztutzea ta hola, baiño bestela... ez, ez. Ez giñan...
-Eta etxian ruluak-eta jartzen ziran ala...?
-Nik kixkurra nun eta ez nun bihar izaten, baiño bai, bai. Ruloak eta hola. Ruloak bai. Ta etxian garbitu ta...

15. Francoren garaiko filmak eta debekuak

- **Erref**: DON-072/031
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:40:03. **Bukatu**: 00:43:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zinemara igandero. Francoren garaiko filmak. Pelikula amerikarrak. Zinema aretoak. Antzerkia, udan. Euskaraz hitzik ere ez zen entzuten. Ikurrina San Inazioko dorrean (ikus mapan) eta Artzain onean.

Transkripzioa
-Esan dezu zinera, zinera asko juten ziñetela.
-Igandero.
-Ta ze pelikula zeuden orduan, edo ze gustatzen zitzaizuen zuei?
-A, oso pelikula onak baziren, e. Oi, baziren, bai, bai, baziren. Gerran garaiyan “pues” bueno, lenbizi francotar guztia: “¡A mí la legión!”, “Jarca”... holako pelikulak. Eta gero amerikanak ere bai. Bere gerra haundi hori... “La señora Mimiver”, nola juten ziren gazteak eta etortzen ziren besoik gabe ta... oi, tristia benetan. Baiño... “Los mejores años de nuestra vida”, ordun artista... neri asko gustatzen zizaidan “este” Katherine Hepburn. Katherine Hepburn eta bere maitalea, nola zan? “Es que” izena jun... izenak ahaztutzen zaizkit. Bueno, bai, pelikula onak baziren. Txarrak ere bai, baiño bueno.
-Eta zine aretuak asko egon ziran, ez?
-Bai, bai, baziren ordun asko, e. Asko ziren. Victoria Eugenia, Principal, e... Miramar, Trueba... Trueba orain ere badago... Baziren, baziren asko.
-Eta antzerkira juten ziñaten?
-Antzerkira bai, etortzen zanian juten giñan. Bai, bai, [...] antzerkia etortzen zan udaran, konpañia onak etortzen ziren, bai.
-Nundik etortzen ziran, Madrilletik?
-Madrilletik, bai. Bere “turné” eginez.
-Ta erderaz, ez?
-Dana, dana! Ez genun hitz bat entzuten. Bueno, nere lagun miñena ere... euskeraz ez zekien, e.
-Ez?
-Nere... ez. Hauek beste kuadrillakin ibili aurretik... ez zekien /etzekien/. Eta gero, gero Batxillerra bukatu genunian, gero jakin genun... guren artian dana... Eta gero: “Oi, zu... (Edurne, oi, Mari Nieves ordun) Mari Nieves, zu euskalduna zea!”. Ta “bai. Ta zu ere bai”. “Oi, ni ere bai!”. Ta ordun, zazpi urte alkarrekin pasa ta ordun konturatu giñan euskaldunak zirala. Ez gendun hitz bat esaten.
-Eta hemen girua orduan, auzuan, kalian-eta dana erderaz.
-Erderaz dana-dana.
-Eta aurretik...
-Bira. Eta ikurriña? Bueno, jendia, jendia espetxea, eta norbait ere hil, bat baiño gehiyo ere bai. Egun batian, bueno gure haurrak ya... ez dakit ze urtian izan zan, e... “Xabier, Xabier, Lurdes, beira, jeiki danak!”. Ni hemen etxian: “Jeiki, jeiki zatezte! Tozte, tozte korrika!”. Ta San Inazioko torrian ikurrin bat. Zuk bakizu ze izan zan hori? Emozionantia baiño benetan. Eta belaxe, hau dana libre, parkia zan, e, ordun. Txukuna ta ongi. Eta bat [...], eta hasi zan jendia biltzen, hasi zan jendia biltzen, eta hoi. Haiyetako bat nere... zan mutil gazte bat, eta detektibe ta fotografoak-edo argazkia ateratzen, ta bere arpegiakin geratu ziren. Atxilotu zuten.
-A, bai?
-Honea etortzeagatik hori ikustea.
-Hori ikustera? Ikusteagatik bakarrik?
-Ikusteagatik bakarrik. Eta ni goatzen naiz behin ere Buen Pastorren gertatu zan, nola oso zaila izan zitzaiyen, baiño nola lortu zuten ta bakizu,

Buen Pastorren puntan e... ikurriña ikustia, ze izango zan hura!
-Bai.
-“Pues” pentsa, oain iruditzen zaigu ezer ez, ezta? Baiño... bai, urte gogorrak izan ziren /izantziren/.

16. Mendia eta abertzaletasuna

- **Erref**: DON-072/033
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:44:59. **Bukatu**: 00:45:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Euskaltzaletasuna piztu zitzaion mendian hasi zirenean; orduan hasi zen Elbira Zipitriarengana joaten.

17. Euskararen aldeko lanak

- **Erref**: DON-072/037
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 00:46:11. **Bukatu**: 00:50:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Seme-alabak irratira joaten ziren, euskaraz irakurtzera. Euskarazko mezak. San Inazio parrokiako euskarazko lehen hileta bere amarena, 1965ean. Salmoak prestatzen zituzten haurrek. Baraurik mezetara, Kontzilio aurretik.

18. Garizuma eta Pazkoa eguna

- **Erref**: DON-072/038
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:50:14. **Bukatu**: 00:53:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Garizuma. Inauteririk ez zuen ezagutu. Ejerzizioak. Zazpi eliza bisitatzen zituzten, dotore jantzita. Arrosarioa errezatzera. Pazkoa egunerako estreinatzen zuten arropa. Dena bekatua.

19. Dena bekatu zenekoa

- **Erref**: DON-072/039
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:53:14. **Bukatu**: 00:54:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Sermoi beldurgarriak, infernua. Helduta dantza egitea ere bekatu.

Transkripzioa
-Sermoiak ere gogorrak izaten zirala, ez, lenguak?
-Buf. Bai, bai.
-Infernurako... infernuko sua ta...
-Bai, bai, bai. Betirako, “el reloj”, betirako “para siempre jamás, para siempre jamás” esaten zizuten gaiñea. “Es que” askoz... oi, asko liberatu gea gauza hoiekin.
-Munduko akabera eta holako gauzak bai? “El juicio final” eta...
-A, bai, bai, bai. Jesusen figura izaten zan: Jaungoiko bat gaiñian zegona, danak ikusten zuna ta hori. Baiña orain behintzat Jesus: zure laguna, zure ondoan dagoena, zuri launduko dizuna. Beste gauza da. Baiño ordun dana zan zanpa-zanpa.
-Eta dantza itia, helduta dantza itia, ere pekatu?
-Bai, zu, bai, bai, bai, klaro. Bai, bai, ordun kontatzen zuten halako ta halako “pues” dantzan ari ziela zerbait gertatu, ta hil in zan. Pentsa, ze momentua!
-Eta zuek sinistu, dana...
-Ez. Ez.
-Baiña...
-Ez, ez, baiño... Beti barrenen zeozer geratzen da, baiño... ezta izan hortan... Sekulako buelta eman zaiyo, eta oain jun gea beste muturrea. Ta hori´re... ez det /ezete/ uste, nei tristia iruitzen zait ezer gabe ere, ezer sinitu gabe... egia esate(n) (d)izut. Mundu hontako bakarrik...

20. Lantegiak eta hondartza

- **Erref**: DON-072/042
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:55:22. **Bukatu**: 00:58:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Groseko lantegiak. Txokolateak. Antiguako lantegiak. Grosen, auto tailerrak. Sagues auzoa. Hondartzaren ordez, zuloak. Kontxara joaten ziren hondartzara. Ez da ur zalea.

21. Groseko negozioak

- **Erref**: DON-072/043
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:58:01. **Bukatu**: 01:00:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:
Groseko negozioak. Farmazia, dendak, okindegiak... Sagardotegia. Txarroarekin joaten zen pitar bila. Itsasgain elkarte gastronomikoa; aitari merienda eramatera joaten zen batzuetan. Bar Cantabrico. Drogeriak.

22. Tabakalerako emakumeak eta dependientak

- **Erref**: DON-072/045
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 01:00:34. **Bukatu**: 01:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Tabakalerako langileak. Uliatik joaten ziren hiru ahizpa. Emakumeak eta lana. Dependienta asko zeuden. Batzuek ezkondu ondoren ere jarraitu zuten, gehienek ez.

23. Labaderoak, ura eta gasa

- **Erref**: DON-072/046
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 01:02:00. **Bukatu**: 01:04:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Labaderoa non zegoen. Beraien etxera emakume bat etortzen zen arropa garbitzera. Ura etxe guztietan zegoen. Gasarekin ere akordatzen da: txanponekin zebilen makina.

24. Frontoiak eta raketistak

- **Erref**: DON-072/050
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 01:06:25. **Bukatu**: 01:07:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Raketistak

Laburpena:
Principe de Saboya hotela eta frontoia. Raketistak zeuden modan, tolosarrak. Frontoi asko zeuden.

25. Ume gehienak etxean, medikuarekin

- **Erref**: DON-072/051
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 01:07:52. **Bukatu**: 01:10:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Amaetxeak bazeuden ordurako, baina berak haur gehienak etxean izan zituen, medikuarekin. Emaginaren lana. Umeak Paristik zetozela esaten zieten haurrak zirela.

Transkripzioa
-Eta jaio... noiz hasi zan umiak-eta ospitalian eukitzen? Hemen, e, etxian...
-Nik ez ditut izan.
-Etxian...?
-Nik, bueno, nere...
-...jaiotzen ziran?
-Bai, gehiyenak bai, baiño gero ya... bueno, ni... lenengua izan nunerako, ya bazeon... “maternidades” deitzen ziren. Bazeon, bai. Baiño nere amak esan zun: “Ez, ez, etxian hobe”. Ez dakit nun, gure amak sartuta zeukan aldatu zitezkela haurrak, jaiotzekuan ez zituztela bereixiko. Gertatua seguraski garai batian, gertatuko zan behin baiño gehiagotan. Ta hori zun oso sartua. Eta bueno, medikua etxea etorri, eta etxian, bai. Eta laugarreneaiño. Eta gero laguna genun e... komadrona deitzen dana, kolegiokoa ere bai... eta esaten zidan: “Esto es mucho más incomodo, qué trabajo, y que...”, eta ya bosgarrenakin ospitalea, oi, klinikara joan nitzan. Bi azkenak klinikan jaio ziren, beste lauak etxian.
-Eta etxian, etortzen zan medikua eta, e...
-Nere kasuan bai.
-Eta emagiña ere bai, medikua eta emagiña?
-Bai.
-Eta emagiñan lana zein, zein izaten da?
-Horrek lagun... nik uste det /ustet/ lan gehiyena beak iten zula. Azkeneko orduan medikuak... Bai, hori. Baiño lagundu benetan, e... biek, gero azkenian, baiño... Ez, nik suertia izan nun, oso normal jaiyo ziren danak eta ongi.
-Eta umiei esaten zitzaien... noiz esaten zitzaiyen beste haur bat jaioko zala ta...?
-A, guk ez deu arazorik izan, segidan izan direnen. Bosgarrenak zortzi urte t´erdi zitula, esan nun: “Oi, ze pena... azkeneko bataioa, azkeneko jaunartzea, azkeneko”... eta dana eman, eta ya ezer ez. Eta handik lau ur... bai. Ez. Bueno, bea, hori zazpi urtekin, eta bi urte berandugo jaio zan beste bat, “o sea” seigarrena.
-Eta umetan zuei esplikatzen zizueten umiak nundik zetozen ta /da/...
-Paristik.
-Paristik?
-Hasieran Paristik, eta gero ez galdetzia ere hobe zan. Ez, argitasun batere ez.
-Batere ez.
-Ezta galdetu, ezta... “O sea” jakin-miña bai, baiño...
-Ausartu ere ez.
-Ez, hori da. Hor geratzen zan, guren artian hitz eiten genun zerbait ta

kitto. Baiño bueno, ez pentsa, ezer gutxi e.
-Holako kontuez ez zan hitz egiten eta…
-Ez, ez, ez. Ezer gutxi, ez.
-Eta sexuari buruz eta…
-Buf!
-Ezer ez, ez? Hori gero, gero ere ez?
-Gero ere ez. Nik uste det /ustet/ ezta lagunen artian ere ez genula… nik behintzat… ez naiz gogoratzen. Pixkat, zeozer irakurri nonbaiten edo, baiño ezer gutxi.

26. Mutilak eta neskak aparte

- **Erref**: DON-072/052
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 01:10:51. **Bukatu**: 01:13:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Dena debekatuta. Acción Católican ere neskak batetik eta mutilak bestetik. Paseatzen ere aparte ibiltzen ziren. Paseo Berria, gaztelua, bizikleta... eta mendia. Aralarrera trenez. Gasogenoa. Amezketatik Alegiara oinez.

Transkripzioa
- Nik askotan esaten det: “Ez dakit nola ezkondu giñanik ere! Egiya da, holako giroakin eta, e? Hau ez, eta bestia ere ez, ta bestia ere ez”…
- Beldurtuta zeharo, orduan, beti.
- Acción Catolica ere bazeon, ta neskak alde batetik, mutillak bestetik, “pues” ordun noiz elkartu?
- Eta kongregazioak…
- Dantza, dantzatzea, dantzatzea ez. Ba nun? Pasiatzen!
- Bai, pasiatzen ta /da/…
- Abenidan pasiatzen giñan.
- A, bai?
- Baiño pentsa, e. Alde batetik neskak eta beste aldetik mutillak. Hori ezautu det nik. Neskak hola, besotik helduta hiru o lau […] pasiatzen, eta beste aldetik mutillak. Gero ya etorri zan momentu bat ya nahasita, baiño bai, bai, “es que” ez zeon /etzeon/ gauza haundik.
- Eta orduan Paseo Berria-eta ez zan erabiltzen paseatzeko?
- A, bai. Paseo Berria bai, gure kontu… Paseo Berria… “Repaso total”. Bai, Paseo Berria gu behintzat juten giñan lagunak, ta Gaztelura, eta bizikletan ibili, eta… mendira geo.
- Gero ya mendira…
- Baiño mendira hasi giñan hamasei, hamasei ez, hamazazpi urtekin edo hola. Pixkat inguruko mendietara. Gero ya Aralarrea jun behar genunian hartu behar zenun trena, eta gero trenetik jetsi, ta autobusa bat hartu Amezketaraiño joateko. Urte haiyetan batzutan elkartzen giñen asko, mendizale asko, baiño bestetan egualdi kaxkarra edo, igual… bueltan, Aralarra eskursioa egin, hango tontor bat egin eta gero jetsi ta nekatuak, iristen giñan Amezketara, eta aber, autobusa halako orduan zan, azkeneko trena hartzeko. Eta “zenbat zeate?”. “Bost-sei”. “Ez, ordun ez det autobusa

ateako”. Bueno, kotxe bat... kotxe zar bat. Ordun gasogenokin ibiltzen zan, gasolinik ez zeon /etzeon/, eta beai rentabilidadia ematen ez bazion, ez zun /etzun/ muitzen. Ordun, kantari hasi, eta zazpi kilometro edo uste det badaudela Amezketatik Alegira. Eta trena hartzea. Bestela, trena galtzen bagenun, akabo!
- Hantxe geratu bihar.
- Bai, ez zitzaigun iñoiz gertatu, baiño...
- Orduan oiñez asko ibiltzen zan, ezta?
- Bai, bai, asko-asko. Oain, bai, tranbiak baziren baiño ez genun hartzen.

27. Udako tranbiak

- **Erref**: DON-072/053
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 01:13:28. **Bukatu**: 01:14:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:
Udako tranbiak, "jardinerak". Txutxu trena bezalakoak. Kobratzailea aulkiz aulki.

28. Pezeta bat asko zen garai hartan

- **Erref**: DON-072/055
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 01:14:35. **Bukatu**: 01:15:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Pezeta bat asko zen. Magisteritza ikasi zuenean, "Enseñanza doméstica" irakasgaian, esan zieten langile batek 450 pezeta irabazten zituela.

29. Arropa, jostunak; plantxatzen ikasten

- **Erref**: DON-072/056
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 01:15:53. **Bukatu**: 01:18:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Jostunak egiten zuen arropa. Jostun asko zeuden. Egindako arropa gutxi zegoen, trintxerak bai. Plantxan ikasten ibili zen ezkondu aurretik, Urdaneta kalean. Plantxa elektrikoa ezagutu du beti. "Enkainonatzea" zer den.

30. Orduko medikuak eta gaixotasunak

- **Erref**: DON-072/058
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 01:18:22. **Bukatu**: 01:22:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Kale Nagusian bizi zen medikua, Cormenzana. Kukutxeztularentzat pinudi artean egotea ona da. Elgorria. Botikak. Sendagaiak eta gaitzak. Erditu ondoren gaixo geratzen ziren betiko asko. Tuberkulosia.

31. Zorriak eta arkakusoak

- **Erref**: DON-072/059
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 01:22:34. **Bukatu**: 01:24:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Zorriak. Lehen izaten ziren eta orain berriro dabiltza. Orrazi estu bereziak, ozpina. Arkakuso fama zuen Donostiak, eta hori ez da berpiztu. Dentistak: ahizpa joaten zen, baina ez zegoen ohiturarik.

32. Isuna, euskaraz hitz egiteagatik

- **Erref**: DON-072/062
- **Iraupena**: 0:00:22. **Hasi**: 01:25:41. **Bukatu**: 01:26:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Osaba batek isunak ordaindu zituen euskaraz hitz egiteagatik. Polizia sekretuak.

33. Lutoa asko eramaten zen

- **Erref**: DON-072/064
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:27:36. **Bukatu**: 01:28:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Lutoa, urtebete gutxienez. Gero, zuri-beltza. Amak denengatik jartzen zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-01

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com